


# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Bernarda Alba *revisited*



Amaia Alvarez Uribe



### Koadernoia zuri

ARANTXA ITURBE

Elkar, 2017

Azken aldian euskal antzerkia sasoiko dabilela esango nuke. Poztekoa da *Francoren bi-lobari gutuna* bezalako antzezlanak taularatu izana zenbaiten elkarlanean oinarrituta. Edo esperimendazioa lantzen jarraitzea han-hemenka, adibidez, *Mr. Señora* eta *Miss Kabaret* modukoak onduz. EHAZEK martxan jarri berri duen argitalpen zerbitzua ere aipatzeko moduko da: bertan liburu formatuan argia ikusi duen *Arrastoak* antzezlanak, gidoiaz gain argazkiak eta dramaturgiarako oharrak ere badituena.

Narratiba nagusi da euskal literaturan, bai idazketan, baita argitalpen eta irakurketan ere. Poesiak badu bere irakurlekoa, txikia izanda ere fidela dena. Antzerkia... Nor irakurtzen du antzerkia? Antzerkia ikusteko eta entzuteko ez da, ala? Kontua da hasi direla ohikoa baino liburu gehiago argitaratzen eta gustura hartu dugu joera aldaketatxo hau. Antzerki sortzaile batzuk hasi dira antzezlanak taularatu ondoren testua argitaratzen obra horren azken pauso bezala: *Erleak*, *satorrak*, *beleak* edo *Koadernoia zuri* kasu, tradizionalki egin izan denaren kontra.

Bi ahizpa dira liburu honetan narrazio bihurtutako jatorrizko antzezlanaren protagonistak. Arantxa Iturbek egindako moldaketa irakurritak gomendagarria litzateke egunotan Euskal Herriko hainbat lekutan izenburu berarekin taularatzen ari diren antzezlanak ere ikustea. Ama hil berria da eta 20 urtez desagertuta egon den Begoña herri- bueltatuko da, amaren etxera, eta bertan Arrate ahizpa nagusiarekin, bere haurtzaro eta gaztaroko oroitzapenekin eta bere amaren itzal luzearekin topo egingo du.

Ekitaldi eta agerraldiak kapitulu bihurtu ditu egileak, baina kapituluetakoz izenburuek, narratzailearen kontaketa eta pertsonaien arteko elkarriketek ekintzak irudikatzen lagunduko digute. Iluntasuna, hoztasuna, hauskortasuna, mina, beldurra, isiltasuna, haserrea eta tristura aurrez aurre jarriko dira orriotan ametsekin, hitzekin, maitasunarekin, adiskidetasunarekin, elkartasunarekin, pozarekin, askatasunarekin eta konplizitatearekin.

Arantxa Iturberekin ahotsa irratian entzutea edo bere testuak irakurtzea beti da plazera. Gustura irakurriko nituzke/ditut Agurtzane Intxaurrearekin idatzi dituen beste antzezlan argitaragabeak eta etortzeko dauden beste guztiak.

Itxaro Bordak *Milia Lasturkoren eresiaren* berridazketa gogorarazi dit lan honek, *La casa de Bernarda Alba*-ren oihartzuna duelako, eta Bordak egin bezala *Milia Lastur on the road* testuan, Arantxa Iturbek egindako Bernarda Albaren berridazketa, moldaketa edo gaurkotze lana irakurtzera (eta ikustera) gonbidatzen zaituztet. ■

Arantxa Iturbe Maiz idazlea (*Alegia*, 1964).

